

Erosi



AMANCAY GAZTAÑAGA
SORTZAILEA



ANTTON OLARIAGA

Erosi jertse bat, galtza batzuk, zapatak, autoa, etxea, sofa, telebista handi bat eta manta bero bat sofan botata zaudenean telebista handi hori goxo ikusi ahal izateko. Erosi *doritos* pakete bat, garagardo batzuk eta lagunekin konpartituko duzun pizza.

Erosi. Erosi zure ondorengoa. Erosi zure seme-alaba izango dena. Erosi zure ondorengoa izango duenaren gorputza.

Aukeratu emakumea eta erosi. Aukeratu non eta nola izango duen emakume horrek, zurea izango den hori. Zeurea. Zeure-zeurea. Zeuk nahi duzun bezalako. Aukeratu emakumea eta erosi. Aukeratu nor den bera eta nolako den. Aukeratu hasita, aukeratu nahiago *a la carta* izatea.

Erosi. Erosi gorputzak. Erosi gorputz horien zatiak. Erosi bere sabela eta uteroa. Erosi umetokitik aterako duen bagina. Erosi bizitza bat. Erosi arima bat. Erosi gorputz bat. Erosi zure seme-alaba.

Dirua trukatu, tratu horretan esku-mena izango duten guztiekin; eta badira batzuk, bai.

Noski, hau guztia ongi programatuta dagoen zerbait da. Aseptikoa. Garbia. Zuria, beti zuria.

Dirua trukatu pertsonekin, ez al da ba hori kapitalismoaren funtsa?

Mugitu dadila dirua, horrela pertsona horrek, agian, jertse bat, zapata batzuk, sofa eta telebista ikusteko manta goxo bat eros ditzake. Edo ziurrago dena: bizitza aurrera ateratzeko eta ez itozteko erabili dezake diru hori. Agian bere burua salbatzeko? Edonola ere, dirua trukatu, hori da eta garrantzitsuena.

Aukeratu egin duzun hori justifikatzeko beharrezkoak diren ideia eta pentsamendu guztiak. Barneratu. Zeure burua lasaitu, "dena ongi dago" batekin.

Erosi ume bat. Sortu ume bat zerotik. Pila bat daude maitatuak izateko zain, baina zuk, sortu bat gehiago.

Daudenak ez dira interesgarriak. Daudenak, jada existitzen direnak, ez dira zeureak. Ez zeure-zeureak. Beste batzuenak dira. Eta auskalo nor diren beste horiek, ezta?

Hau, erosi duzun hau, zeurea da. Zeuk aukeratu duzu. Jertsea, etxea eta manta bezala.

Erosi zure ondorengoa. Erosi bizitza bat. Erosi arima bat. Erosi gorputz bat.

Aukeratu emakumea eta erosi zure ondorengoa eramango duen sabela.

Askotan idatzi eta berridatzi dut testu hau. Iritzi-artikuluak idaztea ez da gauza erraza. Zeure ideiak publiko egiten ari zara... eta ez al da hobe, garai hauetan, ostruka bat bezala burua

ezkutatu eta gauza batzuen aurrean posizio klarurik ez izatea?

Bestalde, zergatik hitz egin orain honetaz? Zenbat gizonetzko "zurik" erabili dute praktika hau familia bat osatzeko? Zergatik, orduan, Anitak egin duenean izan dut hitza hartzeko adorea? Egia esan behar badizuet, denbora da gai hau hona ekartzeko gogoia nuena, baina ez nintzen ausartzen, eta orain "masak" ematen didan indarra erabiliko dut burua lurretik atera eta nire iritzia emateko.

Lagun asko ditut inguruan guraso izan nahi dutenak eta ezin dutenak... Ulertu dezaket horrek ekar dezakeen frustrazioa eta mina. Bai, badakit, ni ez naiz ama eta askok esango dute ezin dudala imajinatu ere egin zer den familia bat izateko bulkada sentitu eta ezin gauzatzea.

Ez naiz ama, baina badakit zer den frustrazioa, nik ere baditut nahiak eta gogoak eta ondo dakit zer diren lortzen ez direnean sentitzen dituzun mina eta dolua.

Familia bat osatzearen ideia ez da eskubide bat, desio bat da, gogo bat da. Horregatik, asko beldurtzen nau nire inguruan praktika hau geroz eta gehiago hedatzen ari dela ikusteak.

Diruak dena eros dezake? Erosi neza-ke nik nire desiorik eroena? ●